

**"Ama gaxo dago"**

[Egile ezezaguna]

*Euzko Deya* [Mexiko], 293. zk., 1964-11-15: 24-25.

Ugalde'tar Martin idazle distikortsuak irarrita argitaldu dau, "Ama gaxo dago" izenduta, antzerki polita. Lau ataleko antzerki au, oso ona dogu, eta gure arloan antzerki bidez lan gutxi egin bada, –euskeraz beintzat–, Ugalde'tar Martin idazle azkarraren antzerkiak bideak edegiten dituz.

Euzkera erraz-errazian idatzia da atan be, ta oso mamintsua erriak aditasun aundienian entzuteko. Antzerkia, Etxaniz'tar Nemesi apaiz-gizon beldurgeari eskeiña da.

Gure Martin ez da ibilli arako itz berrian billa, ez. Arako "neologismo" guziak alde batera utzita, euzkerazko itz errazenak aurkitu ditu, eta onetara irakurten degu "Ama gaxo dago" izenduriko antzerkitxoa goxotasunik onenian.

Gure Euzkera'ren atzerki arloa aberastu digu gure Ugalde idazliak, eta baita emon berari ixugarritzko aberastasuna.

Ona gure Ugalde'tar Martin'ek zer dirauzkun bere asierako atzalpenian, BI ITZ burututa:

"Antzerkitxo onek ba'du bere jatorri berezia.

Ez det orain arte antzerki lanik idatzi; ta oraingo asmo au ez da antzerki lanean ekiñaldi bat egiteko gogo utsarekin sortua izan. Orregaitik, bi itz oiek ba'dute berezko esan nai bat.

Lehenago, gaia.

Azpaldi neukan gizonak bere izkuntzaganako bete-bearra zenbait añekoa dan gogor, ernegarri, esateko gogo.

Nola ordea?

Izkuntza erri baten anima dala esatea asko da; bañan ulerkaitzegia, nonbait; ez bai dio erriari larri-aldi aundirik sortu.

Errira garbiro jetxita ere, izkuntza ama bat bezela maite bear degula esatea ez da oraingoa, ta denborarekin indarra galtzen joan da; gaur ez du bultzada aundirik.

Zerbait berri eta ernegarriaren billa ibilli naiz.

Ta ama au, orain bertan, gure eskuekin, bakoitzaren esku biguñ edo atzapar gogorrekin, itotzen ari gerala gordi-gordin erakusteko biderik arkituko ba'nu?

Au izan da, ba', lenengo maila.

Bigarrena, bidea.

Bein gaia asmatu ta gero, nola asmo au egiazkien azaldu?

Bide onen billa asi baño lenago nere buruari egin dioten oar bat: erriko izkuntza berarekin erriaren biotz-biotzera esateko bear gorria detala.

Orduan, kontu bidea ezin erabilli; naiz ta nik oitura geiena dauketan bidea izan, kontu moduan idatzita ez litzake asmoa erri-errira elduko.

Ta antzerki bidean esango ba'nu?

Oiek dira ba' antzerki lan onen bi mailak.

Gero, antzerki lanetan ondo dakien bateri lantxoak erakutsi nai izandu diot, eta Monzon'tar Telespor jaunaren laguntz eske joan naiz. Euskel antzerkiaren langille trebe onek bai leial asko eman ere! Bejoadizkio berari nere eskerrik biotsuenak.

Ta orain, bi itz luze oien ondoren, ara emen "Ama gaxo"".

Zorionak aunitz Martin euzkel-idazle jator-orrei, ta jarrai aurrera bide orretatik, bada antzerkia dalago gure izkuntza goraltzen dun esapiderik sendoena.